

**Madrilgo Euskal Etxeko 7. Olerki Lehiaketa euskaraz - 2018**

Zazpigarren urtez Euskal Etxeak euskaraz idatzitako olerki lehiaketa iragartzen du.

**1. Parte hartzaileak**

Euskal Etxeko **bazkideek** zein Euskaltegiko **ikasleek** hartu ahal izango dute parte.

**2. Olerkiak**

Gaia librea izango da eta lanak jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izango dira.

Epaimahaikideek imaginazioa, kreatibitatea eta aurkezteko modua baloratuko dute, batez ere, eta kontuan izango dute parte hartzaileen artean maila desberdinak egongo direla hizkuntzaren ezagutzari dagokionez; hortaz, jasanbera izango da ager litezkeen akats linguistikoekin.

**3. Aurkezpena**

Olerkian ezin da idazlea nor den jakinarazi lezakeen daturik agertu, hots, **izenburua eta olerkia** besterik ez dira agertuko.

Olerkiak «EUSKAL ETXEA-Olerkiak»-era zuzendutako gutunazal handi eta itxi batean aurkeztuko dira. Gutunazal horretan ezin da beste ezer idatzi. Barruan, olerkiez gain, beste gutunazal txiki bat sartu behar da, itxita, eta bertan idatzi behar da: olerkiaren izena, egilearen izena, telefonoa eta bazkide edo Euskaltegiko ikaslea (edo biak) den.

**4. Aurkezteko tokia eta epea**

Lanak Euskal Etxeko Idazkaritan edo Atezaindegian entregatu behar dira 2018ko ekainaren 7a baino lehen.

**5. Epaimahaia eta epaia**

Euskal Etxeak hautatutako pertsonak osatuko dute epaimahaia. Epaia ekainaren 19a baino lehen emango da ezagutzera.

**6. Sariak**

Lehengoa: 75 euro  
Bigarrena: 50 euro  
Hirugarrena: 25 euro

Epaimahaikideek hala erabakiko balute, sariak eman gabe gera litezke.

**7. Sarien banaketa**

Ekainaren 25an izango da, 19:00etan, Pello Aramburu aretoan.

